# "Punta-Puntako Moda"

## Heziketa-koadernoa

L.H.
2. zikloa







## Oihaltxo eta bere laguna


Kaixo lagun! Ni Oihaltxo naiz. Ez duzu sinestuko zer gertatu zaidan. Ni...
1


...lantegi batean sortu ninduten artilea erabiliz. Handik atera eta denda batetara iritsi nintzen.
2
DENDA


Nire jabeak erosi ninduenean, oso pozik jarri nintzen. Baina...
MERKEALDIAK
...etxera iristean, a zer nolako sorpresa! Armairua arropaz beteta zegoen. "*Zertarako ekarri ote naute hainbeste arropa egonda?*" pentsatu nuen. Handik gutxira...
...lau edo bost aldiz erabili ondoren, aspertu eta baztertu egin ninduten beste arropa-lagun batzu bezalaxe, eta azkenean, zaborretara bota!
Baina, nik ez dut hemen egon nahi. Lagundu!

1 Gurasoei **behar ez duzun arroparik ez eskatu.**







2 Daukazun arropa **ongi zainduz gero,** gehiago iraungo dizu.



3 Arropa hondatzen bada, **saiatu konpontzen.**











5 Erabiltzen ez duzun arroparekin zer egin ez badakizu, ez bota zaborretara, etxean **bildu.**




4 Txikia geratu zaizun arropa, ezagun bati **eman.** Zuk ere, besteek emandakoa erabil dezakezu.


Lasai Oihaltxo! Etxean bildu eta gero...
...etxeko norbaitek gure herrian oihalak biltzen diren tokira eramango zaituzte. Han, zuekin, bi multzo egingo dira:
OIHALEN BILKETA
Ongi dauden arropak...
...beste norbaitek erabiliko ditu.
Gaizki dauden arropak...
...garbiketarako trapuak egiteko.
Izan gure lagun! Hemen ezin da ezer alferrik galdu.



# GALDERAK ERANTZUNEZ



1. Nora eramaten dira zure herriko zaborrak?
   - [ ] mendira
   - [ ] hondartzara
   - [ ] zabortegira

2. Zergatik daude txoria "sudurra" tapatuta eta arraina erdi zorabiatuta?
   - [ ] katarroa daukatelako
   - [ ] oihal lantegiek kutsadura sortzen dutelako
   - [ ] norbaitek puzkarra bota duelako

3. Merkealdiei buruzko ondorengo esaldietan, esan zeintzuk diren egiazkoak (E) eta zeintzuk diren gezurrezkoak (G):
   - [ ] - Merkealdietan arropak normalean baino merkeago egoten dira.
   - [ ] - Merkealdietan beharrezko gauzak erosten dira soilik.
   - [ ] - Gehienetan, behar ez diren gauza asko erosten da.

4. Zure armairuan baduzu oso gutxitan erabilitako arroparik? Bai / Ez

5. Zein ontzira sartuko zenituzke zabor hauek (geziak erabili)



6. Konpondurik dagoen arropa edo zapatarik erabiltzen duzu? Bai / Ez

7. Beste norbaitek emandako arroparik erabiltzen duzu? Bai / Ez
   Eta zuk behar ez dituzunak, besteei eman? Bai /Ez



# TALDE-LANA



Taldean aztertu eta gero, margotu BERDEZ egokiak iruditzen zaizkizuen jarrerak, eta GORRIZ desegokiak iruditzen zaizkuzuenak.



# ESKULANAK



## "Artilezko Ponpoiak"

### MATERIALAK



kartoia

goraizeak





artilea

### URRATSAK

2 kartoiak parean jarri



artilea, marrazkiak azaltzen duen moduan pasa.



Bi kartoien tartean zehar moztu artilea



artilearekin korapiloa egin



moztu bi kartoiak



azkenean



nahi baduzu, ponpoi hauei aurpegi itxura eman.



## "Orri bereizgailua"



Plantila hau kopiatuz, margotuz eta moztuz, liburuentzako orri bereizgailu bat egin dezakezue.


Argitaratzailea

BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Enplegu, Emakume eta Ingurugiro Saila
Area de Empleo, Mujer y Medio Ambiente

Tel.: 94 420 51 93

Egilea

artelatz

Artelatz Koop.
Ingurugiro zerbitzuak

Laguntzaile

Rezikleta S. COOP.

Tel.: 94 457 14 47

Paper 100% birziklatuan
eta klororik gabekoan inprimatua

2000ko maiatza

**OHARRA:** Hezkuntza-material hau, egile berberak, Donostialdeko San Markos Mankomunitatearentzat 1997an sorturikoaren moldaera da.